

4. GARAIA

LURRA ZAIN DEZAGUN!









Gaian sar zaitez
Testua uler ezazu
Obra osoa irakur ezazu
Irakurtzen eta idazten treba zaitez
Ahozkoa: uler eta adieraz ezazu
Idatz ezazu
Testu eta obren arteko loturak egin itzazu
Hiztegia aberats ezazu
Testu motak ezagut itzazu
Olerkiak, kantuak eta erran zaharrak










Gure azieta Gure Euskal Herria	Irudien deskribatzea	68. or.
Etxalde ereduak - Laborantzako lurzorua - Hazkuntza ereduak - Laborantza ereduak -Non jatekoa erosi? - Zer jan? Nondik etor liteke gure elikadura edo abereena? argibide dokumentuak	Argibide dokumentuak ulertzea	70. or.
Izar saltzailea Eneko Bidegain	Jabetzeari buruzko obra bat ulertzea Zatiak elkarri josiz Irakurrikus	74. or.
Gure azieta, gure Euskal Herria	Irakurketa izendatua	73. or.
Izar saltzailea Gure azieta, gure Euskal Herria	Elkarrizketa ulertzea	73. or.
Laborantza ereduak	Azalpen testu bat idaztea	73. or.
	Ingurumenaren babesa gaia sakontzea	76. or.
Laborantzari buruzko argibide dokumentuen eta Izar saltzailea ipuinaren hiztegia	Ipuinaren irakurri aitzin hiztegia ikastea	78. or.
	Azalpenaren ezaugarriak ezagutzea	79. or.
Ikaste buruzko olerkiak, kantuak eta erran zaharrak		80. or.



Gaian sar zaitez

Irudi zatiak irudi handian koka itzazu
eta deskriba.








Testua uler ezazu

Irudiaren zatiak aztertu eta, argibide horiek irakur itzazu bi laborantza ereduren ezagutzeko

Etxalde ereduak


GAEC Bipergorri

Gure elkarrekilako ustiapen laborantza elkarteak (GAEC), 120 hektarea partekatzen ditugu 3 familiaren artean (= 4 lanpostu eta erdi). Eta bizitzeko aski badugu!




Etxandi Jaun Andereak

Hemen 200 hektarea behar dira bi lagun biziartzeko.



Laborantzako lurzorruak



Hektareka (10 000 m²) 3 tona zizare izan daitezke. Landare hilez eta lurrez elikatzen dira. Mugitzeko eta elikatzeke galeriak zilatzen dituzte eta horiek airearen eta uraren pasabide bilakatzen dira.

GAEC Bipergorri




Etxexuri Jaun Anderea




2. dok.: Lurra

Hazkuntza ereduak

Etiandi jaun-andereek munduko esne behi arraza emankorrenetarik bat hautatu zuten hazkuntza intentsiboaren egiteko.



Bipergorri etxalatean, alafiz, larre-arrazako behiak dituzte, gure eskualdeari egokituak baitira.



Pentzean afrelerik, behiak arbolapean euritik eta eguzkitik gerizatzen dira. Hesietan bioaniztasun gehiago bada zernahi txori eta intsektu mota.



Pentzeetan, landareetaren aberastasunari esker, behiek behar dituzten bitaminak eta oligo elementuak aurkitzen dituzte. Eta aise gutiago eritzen dira!

3. dok.: Hazkuntza - iturria: FADEAR

Laborantza ereduak

Lurrik gabe, nequtegi berotuetan, ur, onkailu eta pestiziada arantz erabiliz ekoizten dira. Oronen buru iza joria erabiltzen da, kamioi bidezko garraioa ongi jasaten duena. Baina gustu gutikoa.

Iragan udan entsalada ekoizle batzuk ezagutu genituen. Ez zituzten beren entsaladak kontsumitzei tratamendu gehiegi eta zapora gutiegi baitzuten. Besté baratze bat bazuten berendako!



Bai, baina jende gehienek hori egiten dute: zuk adibidez erresorta matalaz enpresa batean lan egiten duzu. Baina furon batean lo egiten.

Harrigarria da, ez?



Horregatik dira AOC sormarketako ekoizpen bolumenak mugatzen. Irulegiko arnoa, adibidez, zapora gutiko arno urtsua bilaka ez dadin!



4. dok.: Laborantza - iturria: FADEAR

Non jatekoa erosi?



5. dok.: Erosketak - iturria: FADEAR

Zer jan nezake?

URAREN ERABILERAN ERAGIN HANDIENA: GURE JATEKO MOLDEAK!

2 AZIETA HOBERENA

Jateko molde jasagarrien definizioa (FAO 2010): Jatekomolde jasagarriak ingurumenean eragin gutiko sistematik dira, eta gaurko eta biharko belaunaldiendako hazkurri segurtasunaren parte dira. Elikagai mailan orekatuak dira, segurak eta sanoak. Baliabide naturalak eta jende baliabideak ahal bezain guti kaltetzen dituzte.



Gaur egungo jateko moldeek Lurraren mugaz gaindiko baliabideak behar dituzte eta eritasunak sortzen: **gure osagarriarendako eta ingurumenarendako kaltegarriak dira.**

2030EKO JATEKO MOLDE IDEALA*


Animalia jatorriko produktu gutiago eta landare gehiago jatea **osagarriarendako eta ingurumenarendako on da.**

* Afterres2050 Solagoren arabera



6. dok.: Elikadura - iturria: Afterres SOLAGRO

Nondik etor liteke gure elikadura edo abereena?



Uler ezazu

Argibide dokumentuetan xehetasunak hartuz, laborantza industrialaren eta laborantza herrikoiairen ondorioak azal itzazu.

Ikastalde osoan, gai desberdinak zerrenda itzazue.

Adibidez: laborantza mota bakoitzak zer eragin ote du bioaniztasunean?



Idatz ezazu

1 Gaiak banatu eta, azalpen testu bat idatz ezazue binaka.



2 Bukatzeko, bikote guzien lanak bil itzazue bi laborantza moten ondorioak azaltzeko.



Irakurtzen treba zaitetz eta ahozkoa: uler eta adieraz ezazu



Gure azieta, gure Euskal Herria jokoaren bidez laborantzari eta janariari buruz gehiago ikasiko duzue, herritar eko-arduratsua izateko.




Obra osoa irakur ezazu

- 1 *Izar saltzailea* albumaren orrialde bikoitz hau zehazki deskriba ezazu: “Zer ikusten duzu eta zer da egoera?”
Ondotik, gertakari honen aitzinetik eta ondotik zer gerta zitekeen marraz eta idatz ezazu.



- 2 4.-11. orrialdeak irakurri eta, bunbuiloetan idatz ezazu Xubanek zer sentitzen duen, zer sinesten duen eta zer nahi lukeen.
- 3 12.-19. or.: Herrian pizten den giroa deskriba ezazu. Merkataritza eta pertsonaien jarrera adierazten duten hitzak edo hitz multzoak bil itzazu.
- 4 20.-27 or.: Izarren salmenta bukatzearen ondorioa esplikatu ezazu.
- 5 28.-35. or.: Herrian sortzen den gatazka ulertu ezazu **Zatiak elkarri josiz** jardueraren burutuz.
- 6 36.-41. or. Herrira bakearen itzularazteko, Xubanek egin duen autokritika azal ezazu. Haren gogoeta bunbuilotan idatz ezazu.
- 7 *Izar saltzailea* ipuinaren **Irakurrikus** adierazpena eraiki ezazu. Sortuko duzuen eskeman oinarrituz binaka ipuina elkarri kontatu iezaiozue.

- 8 Liburuan ageri diren izarren irudi guztiak ordenan eman itzazu. Ondotik, irudiak eta dagozkien erranaldiak lot itzazu, ipuinaren laburbiltzeko.



1. Laidak, bi izar elkar-tzen zituelarik distira biziagoa zuten.	2. Izarren Askapen Mugi-mendua sortu zen	3. Izarrak askatu ziren eta jendeari indarra berpiztu zitzaion.	4. Izarrak beren tokian berriz ezarri, alaitasuna itzuli zen herrira.
5. Jabetzak du zoriona ekartzen ala naturaren partekatzeak?	6. Xuban ohartu zen bere negozioak ez ziola zorionik ekartzen.	7. Trabatzaileak preso baitziren, bakea herrira itzuli zen.	8. Distiraren berreskuratzeko, bigarren eskuko izarren merkatua hasi zen.
9. Bakeak ez zuen iraun. Izarren distira berriz histu zen.	10. Izarren berpizkundeak ez zuen iraun. Jabetza aldaketak ez zuen funtzionatzen.	11. Xuban zerura begira zegoen, ameslaria zen.	12. Nahiz eta izar berri bat ukan, izarren distira galtzen zen.
13. Xuban izar biltzaile bilakatu zen.	14. Legea lege zen! Legea jabetza pribatua zen. Laida eta haren lagunak preso ezarri zituzten.	15. Laida legez kontra ari zen, izarrak zeruari itzuli zizkion.	16. Bekaizkeria baitzen, merkatu beltza hasi zen.
17. Izarrak agortu ziren. Herritarrei frustrazioa eragin zien.	18. Xubanez saltegi bat ireki zuen, izarren saltzeko.	19. Laidak ahizparen izarra nahi zuen, jelos zen.	20. Laida saltegiara joan zen izar baten erosteko.



Obren arteko loturak egin itzazu



Bat baino ez da! / Tracey Corderoy, Tony Neal - © Ibaizabal, 2020

Eguzkibar hiri ezin hobe zen, adeitasuna eta poza nagusi ziren lekua. Egun batean biztanle batek bilgarri bat lurrera bota zuen arte. «Bat baino ez da!», pentsatu zuen. Baina, pixkanaka, biztanleek jokabidea aldatu zuten, gainerakoekiko axolarik gabe jokatzeko hasi ziren. Zer egin zezakeen Saguak adeitasuna eta errespetua berreskuratzeko?



Hiru begiko igela / Olga de Dios © Denonartean, 2018

Hiru Begiko Igela leku kutsatu batean hazi da. Oso jauzi handiak egiten ditu gertatzen ari dena ulertzeko asmoz. Laster ohartuko da GAUZAK aldatu nahi dituela... Lortuko ote du halakorik bakarrik egitea? Konponbide komunak bilatzera adoretzen gaituen ipuina.




Zaindu edo xahutu? / Rousseau, Geneviève, Meens, Estelle © Ttarttalo, 2015

Eskolan, Markok Lurrari laguntzeko zer egin dezakegun ikasi du: sailkatu, birziklatu, konposta egin... Etxera iritsi denean, ideia xeble batzuk bururatu zaizkio.



Benetako munstroak planetari mehatxuka / Marie G Rohde © Ttarttalo, 2020

Munstroak dabilta planetari mehatxuka: zeure buruaren gainean hegan, itsasoaren sakonean adi edota lurpeko estoldetan ezkutatuta. Ekaitzak sortzen dituzte, ibaiak eta lakuak idortzen, animaliak uxatzen. ZABORKONG itzela, KETAKETZA nardagarria, KOIPEDONTE likatsua edo HIRISAURUS geldiezina hain dira izugarriak, horien ondoan zure ohepeko munstroak pelutxe ñoñoak irudituko zaizkizu. Benetako munstroak dira! Soilik ingurugiroaren aldeko heroiek menderatuko dituzte! Bihur zaitez ekintzaile txikia, eta lagundu kreatura gaizto horiek akabatzen! ilustratu honetan.



Koralaren distira / Cristina Etxabe, Maite Márquez © Mezulari, 2020

Ipuin eder honek, plastikoek eta klima aldaketak ozeanoetan duten eraginari buruz hausnartzen laguntzen du.

Plastiko-zopa / Judith Koppens, Andy Engel, Nynke Mare Talsma © 2020, Ttarttalo

Klimaren lagunak hondartzara joan dira egun-pasa, eguzkiaz eta itsasoaz gozatzen. Igela uretan murgildu da, eta ur-azalera irten denean, plastikozko poltsa bat du buruan. Igelak itsas munstro bat dirudi!

Baina plastikozko poltsa ez da uretan flotatzen ari den gauza bakarra. Zergatik dago hainbeste plastiko itsasoan? Bilduma honetako liburu bakoitzean klimaren lagunak abentura bat biziko dute, eta haien modura azalduko digute -maiz, era dibertigarrian gainera- zer egin dezakegun ingurumena zaintzeko.






Elurra ezin da erosi / Garikoitz Berasaluze, Patxi Gallego
© Txalaparta, 2007

Postaletan ezin ederragoa agertzen den herri horietakoa da Kaiomendi. Azken urteotan, ordea, zuhaitzak moztu eta kablez bete dituzte mendiak, burdinazko dorre handiekin batera, elurrarekin iristen diren eskiatzaileak ibil daitezzen. Moilan, berriz, aisialdirako belaontzi zuriak nabarmentzen dira kirol portua eraiki dutenetik, eta parkeak eta zelaiak zeuden lekuan etxe garestiak ikusten dira orain. Haurrek ez dute kalean jolasteko lekurik, auzokideak ez dira joaten Rafael zaharraren okindegira inguruan beste bi zabaldu dituztenetik, eta olatuen artean bodyboard berriekin ibiltzen direnek iseka egiten diete egurrezko txanperoak dituzten lagunei. Baina dirua ez da dena. Elurra ezin da erosi, esaterako. Eremu handiko saltokietan ere ez dute saltzen...



Basoaren zaindariak / Agustín Fernández Paz, Cristina Durand
© Erein, 2006

Rosa andreak bere lurrak saldu ditu, baina lurrak erosi dizkioten gizonek haritzia suntsitu eta etxeak eraiki nahi dituzte. Haritzak botatzeko, ordea, basoko izaki magikoei aurre egin beharko diete erosleek. Zu ere izan zaitezke izadiaren zaindari, baldin eta ongi babesten baduzu.



Basoa sutan / Iñaki Zubeldia, Marimar Agirre
© Erein, 2008

Hemen jaio nintzen eta hemen bizi izan naiz beti. Nora joango naiz orain? galdetzen zion katagorriak bere buruari. Lur jota zegoen bere lurra, bere bizilekua, erre ziotelako.



Haize orratza / Antton Kazabon, Andoni Odriozola
© Elkar, 1997

Ipuin ekologikoa da hau. Xabierren etxea bota egin zuten bertan eraikuntza handi bat egiteko. Etxe berri batera joan behar izan zuten bizitzera. Baina han ez zuten enarek habiarik egiten teilatupean, lehengo etxe zaharrean bezala. Horrek ematen zion pena Xabierri. Baina behin haize-orratz txuri-gorri bat aurkitu zuen eta...



Zaindu dezagun gure planeta / Katie Daynes, Ilaria Faccioli
© Ttarttalo, 2021

Lurra da gure planeta bakarra, baina orain arte ez dugu oso ondo zaindu. Ireki liburua, altxatu leihatilak eta ikusi zer ez doan ondo eta nola konpon ditzakegun gauzak: egin aukera ekologikoak, murriztu eta berrerabili, erabilera bakarrek plastikorik ez, zaindu erleak, bildu zaborra, erosi tokikoa...tuzte gure geografiako leku xarmagarriak bisitatuz.




Zuhaitzak landatzen zituen gizona / Jean Giono, Mikel Mendibil
© Denonartean, 2013

Elzéard Bouffier artzainaren istorio zoragarria duzu eskuartean, Probentzako eremu zabal batean zuhaitzak landatzen urteak eta urteak eman zituen gizonaren istorioa. Kontakizuna 1913an hasten da, idazleak zuhaitzak landatzen zituen artzain bakarti bat ezagutzen duenean, eta handik 32 urtera bukatzen, gerra ondoren eskualdera itzuli eta aspaldi ezagututako eremu hustu eta landugabea bizi-bizirik eta berdetasunez jantzia aurkitzen duenean.

Hiztegia aberats ezazu

Laborantza ereduak



Barrukia




Parrilera

Betoinezko dala bat, avec des fentes pour laisser s'écouler le lisier



Turtoak

Ekilorea, koltza, soja etab.-en haziak xehatzen eta lehertzen dira olioaren egiteko. Olio egina delarik gelditzen diren landare hondarrei "turto" erraten zaie. Abereen bazkatzeko erabiltzen dira.



Pestizidak produktu kimikoak dira, landareak hondatzen edo trabatzen dituzten izakien



hiltzeko erabiltzen dira. (izan daiteke intsektizida, fungizida, herbizida)



Ongarria

Mikroorganismoek deskonposatu inaurkin (lastoa, iratzea, belarra...) eta abere gorotz eta pixa nahasketa.



Koltza (loreak eta haziak)



Zuhain idorra

Izar saltzailea

Ospearen ataria!: Ezaguna eta aberatsa izatetik hurbil

Aparra: uhinen gainean osatzen den hagun zuria

Harrapari: harrapatzen duena, elikatzeko beste animaliak harrapatzen, hiltzen eta jaten dituen animalia

Hortz eskuila: hortzen garbitzeko tresna

Eltzeitsua: Diru xehearen metatzeko ontzia

Aitzindu: Beste zerbait edo norbait baino lehenago gertatu

Ahitu: Agortu, akitu, bukatu

Histu: bizitasuna galdu

Asaldatu: Zerbaiten edo norbaiten kontra altxatu

Goibeldu: Ilundu, tristatu

Iltzatu: Iltzeak erabiliz lotu

Irain: Laido, norbaiten kontrako hitz edo ekintza

Oldartu: Jazarri, altxatu, matxinatu

Goraipatu: Laudatu, lausengatu, norbaitez ongi mintzatu

Tirria: griña, irrika, gogo handia

Tirriki-tarraka: poliki eta nekez ibiltzea

Gozamena: atsegina, plazera



Testu motak ezagut itzazu

Solasaldia (elkarrizketa informala) eta elkarrizketa formala (interview bezala)

Azalpen testuak fenomeno baten gertakari baten kausak eta ondorioak aurkezten ditu, horien aise ulertarazteko gisan.

Laborantza erduei buruz bildu dituzuen ezagutzak ikaskideei azaltzeko testuak nola idatz?

Testuaren egiturari jarraikiz:

Laborantzari buruz zenituen galderak kontuan hartuz sarrera idatz dezakezu.

Azalpena(k) deskribapena(k), edo definizioa(k) ere izan daite(z)ke.

Bukatzeko, galderan oinarrituz erantzun sinple baten bidez dokumentua borobil dezakezu.

Testuaren kohesioa zainduz:

3. pertsona, indikatiboazko orainaldian, aspektu burutua eta burutu gabea erabiliz idatz ezazu, kausa eta ondorio adierazleak erabil itzazu, eta gaiarekin lotua den hiztegi teknikoa balia.

Argibide dokumentuak adituak ez diren hartzaileei ezagutzak transmititzen dizkiete.

Laborantza erduei buruz ezagutzak partekatzeko eta hartzaileei interesa pizteko argibide testuak nola antola?

Dokumentuaren egitura zainduz:

- Irudien kopurua, neurriak eta kokapena hautatuz (argazkia(k), eskema(k), marrazkia(k)...).

- Testuak artoski idatziz eta tipografiak desberdinduz.

Dokumentuaren kohesioa ahanzi gabe!



Olerkiak, kantuak

Mantalin xuritan

Mantalin arin xuritan,
Lanoz beztia da kanpoa.
Isiltasuna denetan,
Bakea da hedatua.
Oihanetako arbolak,
Baratzetako loreak,
Lanoan dira galduak.

Mantalin arin xuritan,
Bazterrak dagozte lotan.
Nork erran dezake neri
Zoin arbol-adarretarik,
Xorino bat kantuz ari?

Marijane Minaberri Porroxxak

Ezkia haizean kantari

Baratz zolaren zolan den ezki zaharrak
Badu egun menturaz ja berrehun urte:
Pairatu ditu anitz menderen zakarrak
Eta mugitu gabe, mila bat elurte...

Deserrietan nintzen garaian amentsa
Sustatzen zidan ezki zoharrak arraiki
Sentitzen nuen usain eztiaren mentsa
Eta ez nezakeen bidean jarraiki..

Begiak hertsia eta itzalak nau biltzen
Negua dator berriz sekula bezain hotz
Bazterrak direlarik urreaz bipiltzen,

Itzulmin nagokio gogo eta bihotz
Oihu mutu batean naizela amiltzen:
Ezki zahar maitea ez deztela motz!

Itxaro Borda - Ezkia haizean kantari

Haurtxoaren erhiaren puntan
ortzadarra
Haikuak Jean Lissar

Ene leihotik
izarren freskotasuna
Eternitatea
Haikuak Jean Lissar

Ekolapiko

Lurrari eman eta jaso lurretik,
Gozamenak badauka lana aurretik.
Ortutik platerera distanzi(a) gutxi,
Plateretik ahora, ezer ez utzi.

Sartu zazu koilara gure eltzean
Eta sartuko gara zure etxean.

Nahi dut bertakoa:
Natural, askoa.
Gozoa, freskoa.
Nahi dut lurrekoa.
Nahi dut etxekoa.
Nahi dut eltzekoa.
Nahi dut garaikoa.
Nahi dut betikoa.
Nahi dut logikoa.

“Nola erein, hala bil.”

Zahar hitz, zuhur hitz

Ekologikoa!

Ez izan tontolapikoa:
Hautatu ekolapikoa!

Maitasuna hasten da
Sabel barnean,
Maitasuna hazten da
Jaten denean.

Eko-logikoa izan,
Merezi baitu.
Lurra zaintzen badugu
Zainduko gaitu.

*“Berro (sasi) handian,
txori ainitz”*

Nabari da hautatzen
Badakizula,
E-kokolo-lapiko
On dagizula!

Pirritx, Porrotx eta Marimotx - Amalur

Lurra

Lurra da gure alaba
Lurra da gure Ama
Lur ahizpa lur arreba
Lurra gu lurra gara
Ez ehortzi gure lurra
Gu bait gara lurra bera
Lurra da gure alaba
Lurra da gure Ama

Oker goaz aurrera
Gure lurra hiltzera
Biziaren sorrera
Ez igorri lur pera
Ez ehortzi gure lurra
Gu bait gara lurra bera
Oker goaz aurrera
Gure lurra hiltzera

Tribuak zenbat tribu
Baleak zenbat bale
Zenbat ur zenbat oihan
Zenbat hil behar dira
Munduak uler dezan
Ezin duela izan

Alda zaitez denak
Sentimen eta buru
Adimen eta inguru
Aldazazue dena
Ez ehortzi gure lurra
Gu bait gara lurra bera
Adimen eta inguru
Aldazazue dena

Zaldibobo

Musika : Michel Ducau -

Hitzak: Xabier Amuritza;

Caroline Phillips)